

SAN PEDROAK

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

PASAI SAN PEDRO 2023

Musika gozoarekin hasiko dira asteazkenean San Pedroko festak. Tirri Tarra fanfarreak mende erdia bete du aurten, eta haiei egokituko zaie sanpedroen hasierako txupina botatzea, Jai Batzordeak hala erabakita. Euskal Herri eta kanpoko kaleetan azaldu dute herriko musikariek euren grina, eta orain, herriari berari dago kio fanfarreari aitortza egitea.

Festen hasiera ofiziala hilaren 28an bada ere (LGTBIQ+ ikurrina ere alkateordetzaren gorenera igoko dute), aurretik badira ekitaldiak. Izan ere, bihar eta etzi, badira hainbat jarduera: bihar goiz-goizetik Arraitxiki Txapelketa jasoko du Torreatze inguruak, eta etzi, besteak beste, herri triatloia eta 80 urte betetzen dituztenen bazkaria egingo dituzte (egitarau osoa ikusteko joan oarsoaldea.hitza.eus webgunera).

Hemen dira sanpedroak. Tirri Tarra izango da hasierako protagonista. Gai nontzeko egun guztietan, ordea, sanpedrotarrena izango da kaleak eta plazak bere egiteko ardura. Horretarako aukerak badituzte behintzat. ✕



OMENDUAK

OLAIA GERENDIAIN

Tirri Tarra fanfarreko kideek botako dute asteazkenean sanpedroei hasiera emango dien suziria. Astebeteko egitaraua presatatu zuten hilaren 10etik 17ra bitarte (joan den asteburuan izan zuten azken traka handia) 50 urteak ospatzeko, eta harrera bero bezain jendetsua egin zieten San Pedroko musikariei bizilagun, kide, inguruko eta zaleek. «Aste osoko programa prestatu genuen, baina larunbatean olatuaren gandarrean eman genuen egun osoa, 09:00etatik 01:00ak arte, eta oraindik lur hartzen ari gara», mintzatu da Amador Mayo taldekidea, nabarmen hunkituta.

Fanfarrearen lehen belaunaldikoa da hura, sortzaileetakoa. «Josetxo Gonzalez gu baino 2 edo 3 urte zaharragoak ziren hiruzpalaurekin elkartu zen, eta orduan fundatu zen Tirri Tarra. Gu lehen promozioakoak izan ginen, baina hortik belaunaldi gehiago izan ziren gero». 1973. urtearen bukaeran izan zen hori. Orduan baziren sona handiko fanfarreak Gipuzkoan, baina San Pedrokoaren oso bestelakoak. «Denak ziren maskulinoak

San Pedrotik mundura, mus(ikasten)

Mende erdia joan da Tirri Tarra fanfarrea jaio zenetik. Musika banda horiek adineko gizonen kontua ziren garaietan, 12 urteko neska-mutil sanpedrotarrak Europatik birak egiten hasi ziren.

eta adineko gizonenak», gogora ekarri du Mayok. Eta, testuinguru horretan, 12 urteen bueltan zebiltzan gazte sanpedrotarrak, bai mutilak eta baita neskak ere, garairako apurtzailea izango zen musika taldea gorpuzten hasi ziren.

Argi zuten fanfarrea izango zela sortuko zutena, halako musika bandak

30etik 40ra bitarteko musikariak izan ohi baitituzte, eta txarangek, aldiz, dozena pare bat inguru.

Hasi eta buka izan ziren autodidaktak: «Bazen herrian tronpeta jotzen zekien adineko gizon bat, eta batzuei irakasten hasi zitzaigun. Hortik, gure artean, instrumentu bat jotzen zekienak besteei irakasten zien». Eta ez musika bakarrik. Izan ere, lehen promozioa osatu zuten musikari gehienek ikasketekin uztartu behar zuten bandako jarduna, eta doinuekin bezain zorrotzak ziren fanfarrearen zuzendariak ikastetxeko egitekoekin: «Urtean zehar emanaldi puntualak ematen genituen Gipuzkoako edo Euskal Herriko herrietan, baina udara hel-



HIRU TERDI
Hospedaje

Artisau ogi, opil pastel eta gozokien salmenta

Enkarguak hartzen ditugu — Urtebetetzeak — Etxerako tartak — Pintxo goxoak

943 39 90 63 | Pasaman Alargunaren kalea, 7 behea | San Pedro



CIFP – BLAS DE LEZO – BHII

Blas de Lezo

OINARRIZKO, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

ONGI PASA!

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 41 70
blasdelezo@pasaiaeskola.net



tzearekin batera estatu osotik mugitzen ginen, Europatik bira... Autobusa hartu eta txokoz txoko aritzen ginen. Baziren udalekueetan hamabost egun ematen ziztuztenak; bada, guk berdina egiten genuen, baina maila erraldoian». Autobus bidaia horietan asko ziren irailerako azterketak prestatzen orduak ematen ziztuzten gazteak. «Txetxo [Josetxo Gonzalez] zorrotza zen horrekin», mintzatu da Mayo, «behartzen gintuen batak besteari klaseak ematera. Kimika zekienak hori irakasten zion irakasgaia gainditu gabe zuenari». Horretan ere izan ziren autodidaktak.



Tirri Tarrako kideak, 1987an, Iruñean eskainitako emanaldi baten ondoren. TIRRI TARRA

«BIZI-ESKOLA»

Hamarkadatik gora eman zuen Mayok, beste hainbestek bezala, Tirri Tarran. Harentzat, irakaspenak musikaz gandikoak izan ziren: «Nik bi edo hiru solfeo urte egin nituen, baina ez zen nire indargunea [barrez]. Beste paper bat hartu nuen gero fanfarrean, gehiago dinamizazioan. Frantses apur bat ere banekien, beraz, emanaldien antolaketan-eta ibili nintzen gehien». Fanfarreak haren bizian izandako rolagatik galdetuta, ez du zalantzarik egin: «Bizi-esperientzia izugarria izan da niretzat; bizi-eskola bat. Maitasun ikaragarriarekin gogoratzen ditut Tirri Tarrako urteak, eta izugarri ikasi izanaren sentsazioa dut, zentzu guztietan: hain gazte etxetik irten eta mundua ikusteak ematen dizun autonomiatik hasita».

Gizarte langilea da Mayo, eta ez zuen musika ogibide bihurtu hark. Haatik, bada fanfarrean estreinakoz instrumentu

bat eskutan hartu eta egun musikagintza ogibide bihurtu duenik ere. Eta gutxi ez. Tirri Tarraren hiruzpalau belaunaldiak kontuan izanda, 25 bat lagun musikatik bizi direla zenbatetsi du Mayo. Musikarekiko grina pizteaz harago izan zuen zerikusia ibilbide profesional horretan San Pedroko fanfarreak: «Gailentzen zirenei edo zaletasun berezia zutenei musika ikasketak ordaintzen zizkion Tirri Tarrak». Askoki diote, beraz, elkarri eskertzeko: sanpedrotarrek Tirri Tarrari, eta Tirri Tarrak sanpedrotarrei. ✕

URTEK
ITURGINTZA

UR, GAS ETA BERO - INSTALAZIOAK

Ondo pasa jaiak!

Herriko plaza 11 • 20110 Pasai San Pedro
axienbil@hotmail.com - tel. 618 201 450

muguruza ardoak
TABERNA - JATETXEA
pintxoak / razioak / ogitartekoak

Eguneko arraiean espezialistak gara. Etorri gure tomate entsalada dastatzera!

Torreatzea kalea, 8 - beheka 943 39 49 44 . Pasai San Pedro

Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo
943.39.14.14

Bizi San Pedroko jaiak
EUSKARAZI!

PASAIA - LEZO
LIZEOA

pure energy

ikastolenkartea

LOOKLYA



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

Olaia Gerendiain



TXUPINAZOA

Hilaren 28an, 20:00etan. Aurretik badira ekitaldiak, baina sanpedroen hasiera ofiziala hilaren 28ko arratsaldean izango da, beti bezala alkateordetzan. Tirri Tarrako kideak arduratuko dira jada girotuak dauden festak hasteaz. Sorpresak iragarri dituzte.

HITZA



TRAINERUAREN AURKEZPENA

Hilaren 29an, 18:00etan. Banderak irabaziz hasi du KAE1 Liga *Libia* ontziak, non eta etxean. Hala ere, herriko arraunlariek aurkezpena merezi dute, eta hori jaien barruan egingo dute. Morez jantziko da, are gehiago, San Pedro.

Olaia Gerendiain



ARTZAIN ETA INUDEAK

Hilaren 29an eta uztailaren 2an. Sanpedroetan ez dute hutsik egiten Artzain eta Inudeen desfileek. Haurrena hilaren 29an izango da, 12:00etan. Helduena, berriz, sanpedroen azken egunean (uztailaren 2an) 12:00etan hasita.

Urko Etxebeste



JOKOAK

Uztailaren 1ean, 16:00etan. Sanpedrotar guztiek, haur, gazte eta helduek, elkarrekin jolasean aritzeko aukera izango dute uztailaren 1eko arratsaldean, frontoian. Jokoak egingo dituzte aurten ere bai. Ea nor den trebeena.

SAN JOAN FESTAK DONIBANEN

Gaurtik igandera arte.

Donibaneko lehenengo jaiek, San Joan festek, asteburuko egitaraua izango dute. Gaur hasiko dira, Aitana Lizarazuk eta Oihan Arbonak botako duten suziriarekin, eta Lintxua dantza taldearen saioarekin. 22:00etarako, plazan, suaren inguruan bilduko dira sanjuandarrak.

Bihar da San Joan Eguna. 11:00etarako aurreikusitako haurren eta gazte-

en danborrada, ondoren plazan apar festa egiteko. Arratsaldean, plazan ekitaldi gehiago: 17:30ean haurrentzat jolasak, buruhandiak eta txokolata-da, eta 19:30ean mutxikoenak.

Etzi, kirolerako tartea. 10:30ean, plazatik abiatuta, haurren eta gazteen lasterketa egingo dute.

Sanjoanen egitarau osoa oarsoaldea.hitza.eus webgunean.